

**ZONBI
EHIZTARIAK**
Zonbi Erasoak

JOHN KLOEPFER
ILUSTRAZIOAK
STEVE WOLFHARD

desclée









I luntzen ari zen, eta auzoko aire hezea lodia eta astuna zen.

Zack Clarke betiko ibilaldi patxadatsuaz etxera itzultzen ari zen Locust Lane kaletik. Bere auzoan ostiralero izan ohi zen akzio bera aurkitzea espero zuen: Zimmer bikiak patineteekin etengabe trukuak egiten etorbidearen bestaldean, Mansfield andrea bideo-dendatik itzultzen bere seme-alabentzako janari lasterrez eta DVDz betetako poltsekin, eta Stratton zaharra kalean kuxkuxean, esku zaintsuen artean liburu zahar bat zeramala. Baina Arizonako arratsalde sargori hartan, ez zegoen inortxo ere kalean.

Bizkarrean zeraman motxilaren pisuaren azpian makurtuta, Zack azkarrago ibiltzen hasi zen, etxera

iristeko irrikaz. Egun hartan eskolan janari-gerra batean parte hartu zuela-eta, klaseak bukatu ondoren zigortuta geratu behar izan zuen bigarren hezkuntzako linoliozko zoruak leuntzen. Zackek une hartan nahi zuen gauza bakarra hozkailuan zain zuen txokolatezko urtebetetze-tartaren zatia zen. Plastikoz bilduta zegoen, eta ohartxo bat zuen: ZACKEN URTEBETETZE-TARTA. EZ UKITU!

Zackek bere etxea ikusi zuen. Amaren monobolumena sarreran aparkatuta zegoen, eta etxeko argi guztiak itzalita zeuden, bere arrebaren logelako argia izan ezik. Garajearen gainekoa zen.



Espaloitik begira zegoela, Zoeren gela ilunpetan geratu zen, eta etxea huts-hutsik zegoela ematen zuen.

Baina Zackek bazekien bere arreba nagusia, Zoe, eta zortzigarren mailako sorgin hirukote maltzurra (Madison Miller, Ryan York eta Samantha Donovan) beren ohiko pijama-festa entzutetsuetako bat egiten ari zirela. Hortaz, ama eta aita eskolako guraso-irakasle bileratik itzuli arte, bakarrik egongo zen. Beno, haiekin.

Sarrerako eskailerara iristen ari zela, kaleargi batek dir-dir egin zuen eta itzali egin zen, eta belardi osoa ilunpetan geratu zen. Zackek sarrerako atea poliki ireki zuen.

—Kaixo! —esan zuen ilunpetan—. Zoe?

Bat-batean, atea kolpe batez itxi zen eta norbaitek Zacki burua paperezko poltsa batez estali zion.

—Harrapatu zaitut! —oihukatu zion ahots batek.

Berehala, lau esku-parek ukondoetatik eta orkatiletatik heldu zioten, eta lurretik altxatu zuten, atondotik beste nonbaitera eramateko. Neskek tinko eusten ziotela, Zack astintzen hasi zen, baina alferrik, ezin zen askatu.

Zacken bahitzaileek zakarki askatu zuten zurezko bulego-aulki batean, artean paperezko poltsa buruan zeramala. Norbaitek eskumuturretatik eusten zion, eta

besoak aulkiaren atzeko aldean okertzen zizkion, preso bilurtu bat balitz bezala. Zack etengabe mugitzen zen eta ostikoak jotzen zituen, astinduz eta askatzen ahaleginduz. Etsita eta akituta, Zack gelditu geratu zen, eta unetxo batez lasaitu zen itxurak egin zituen, baina orduan erotuta bezala bihurritzen hasi zen, azken energia-leherketa batekin.

Une hartan, seinale digital bat entzun zuen, eta norbaitek buruko poltsa kendu zion. Bere arreba, Zoe, aurrean zuen. Haren atzean, gurasoen ordenagailu eramangarria erdiko mahaiaren gainean irekita zegoen, eta Zackek bere burua ikusi zuen ordenagailuaren pantailan.

—Zoe, zertan ari zara? Badakizu aitak ez digula uzten webcam-arekin jolasten.

—Ez naiz jolasten ari, nebatxo —esan zion, ilea atzera baztertzen zuela eta burua xarma gehiegitxorekin zut jartzen zuela, psikopaten telebista bat balitz eta lehen plano baterako paratuta balego bezala—. VH1 kanalerako *reality show* berri bat ekoizten ari naiz. *Bahituaren Look Aldaketa* du izena. Parte hartu nahi duzu? —irribarre maltzur bat zabaldu zitzaion aurpegian.

—Nahiago nuke oka egin eta ito —erantzun zion Zackek.

—Hau zorte txarra zurea, txiki –esan zion Zoek barretxo batekin–. Neskak, has gaitezen!

Samantha eta Ryan egongelara sartu ziren eta Zacken atzean jarri ziren, harrokeria keinu bat eginez. Ryanek esku batean zinta itsasgarri erraldoi bat zuen, eta Zackek bira egin zuenean, bizkarraren atzean ezkutatu zuen.

—Ez da begiratzen, Zachary txiki! –egin zion errieta, eta buruan kolpetxo batzuk jo zizkion.

—Ondo da, Zack txiki. Egon geldi! –Zoek keinu bat egin zien bere bi laguntzaileei. Segundotxo baten buruan, Ryanek eta Samanthak Zack inguratu egin zuten, eta besoak eta sorbaldak aulkiaren bizkarraldera itsatsi zizkioten. Jarraian, hankak ere lotu zizkioten, ezin zuela ihes egin egiaztatu zuten arte.

